

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

2816

EBAZPENA, 2013ko maiatzaren 24koa, Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariarena, urtarrilaren 26ko 30/2010 Dekretuaren babespean 2012ko ekitaldian emandako diru-laguntzen onuradunen zerrenda argitaratzekoa. Dekretu horren bidez, Europako Erkidegoak fruten eta barazkien arloa arautzeko sortuak dituen erregelamenduak eta erregelamendu horietatik datotzen laguntza-sistema Euskal Autonomia Erkidegoan nola garatu eta aplikatu arautzen da.

Europako Erkidegoak fruten eta barazkien arloa arautzeko sortuak dituen erregelamenduak eta erregelamendu horietatik datorren laguntza-sistema Euskal Autonomia Erkidegoan nola garatu eta aplikatu arautzen duen urtarrilaren 26ko Dekretuaren 25.1 artikuluan honelaxe xedatzen da: «Bai Europako Erkidegoko funtsetatik datozen laguntzetarako eskabideak bai Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretatik datozen laguntzetarako eskabideak elikagai-industrien eskumenak dituen zuzendaritzan aurkeztu beharko dira. Denak aldi berean aurkeztu beharko dira, beranduenera jota hurrengo urteko otsailaren 15ean, alegia, eskabidea zein urtetarako den, hurrengo urteko egun horretan beranduenera ere».

Fruta eta barazkien ekoizleen elkarreentzako 2012. urteko laguntzen zenbateko osoa jakitera emateko, Ingurumena, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren 2012ko urriaren 17ko Aginduaren bidez.

Ebazpenak eman eta esleipendunei jakinarazi ondoren, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testuategia onartu zuen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren 49. artikuluan 2. paragrafoko bigarren idatzi-zatian eta urtarrilaren 26ko 30/2010 Dekretuaren 25.4 artikuluan diru-laguntzen onuradunen zerrenda argitaratu behar da, eta honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Urtarrilaren 26ko 30/2010 Dekretuaren babespean 2012ko ekitaldian emandako diru-laguntzen onuradunen zerrenda argitaratzea. Dekretu horren bidez, Europako Erkidegoak fruten eta barazkien arloa arautzeko sortuak dituen erregelamenduak eta erregelamendu horietatik datorren laguntza-sistema Euskal Autonomia Erkidegoan nola garatu eta aplikatu arautzen da. Zerrenda hori ebazpen honetako eranskinean agertzen da.

Bigarrena.— Ebazpen honen aurka, interesdunek gorako errekurtsioa jar diezaiokete Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko maiatzaren 24a.

Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendaria,
PELI MANTEROLA ARTETA.

ERANSKINA

Urtarrilaren 26ko 30/2010 Dekretuaren babespean 2012ko ekitaldian emandako diru-laguntzen onuradunen zerrenda. Dekretu horren bidez, Europako Erkidegoak fruten eta barazkien arloa arautzeko sortuak dituen erregelamenduak eta erregelamendu horietatik datorren laguntza-sistema Euskal Autonomia Erkidegoan nola garatu eta aplikatu arautzen da.

	NBEUF laguntza	Eusko Jaurlaritzaren laguntza	Guztira
Garaia Sdad. Coop.	117.294,99 €	84.439,63 €	201.734,62 €